



AKORDIOA, 2014KO ABENDUAREN 19KOA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BATZARRARENA, GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BARNEKO ETA KANPOKO GUNEEN UNEAN UNEKO ERABILERARAKO ARAUTEGIA ARGITARATZEN DUENA

UPV/EHUren Gipuzkoako Campusak hainbat xede eta jardueratarako erabil daitezkeen gunek, aretoak, lokalak... ditu, campuseko eraikinen barnean eta eraikin horietatik kanpo.

Gune eta leku horien ohiko erabileraz aparte, bai unibertsitateko kideek bai unibertsitatekanpoko pertsonen beste eginkizun batzuetarako ere erabil ditzakete lokal horiek, eta Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak bultzada eman nahi die era honetako jarduerari, campusa biziberritu eta herritarrengana hurbiltzeko.

Errektoreordetzaren helburua, beraz, campusaren eta gizartearen arteko harremana estutzea da, unibertsitatea herritarrengandik bereizita dagoen konpartimentu estanko moduko bat ez izateko.

Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar era honetako jarduerak eragina izan dezaketela campusaren eguneroko martxan, era batean edo bestean, erabiltzen dituzten gune, areto edo lokalek bere garaian beste xede batzuetarako sortu zirelako.

Orain arte, barneko eta kanpoko gune hauek erabiltzeko prozedura hainbat arautegitan sakabanatuta egon da, eta ez zegoen Gipuzkoako Campuseko guneen erabilera osoki eta era ordenatuan jasoko zuen arautegi bateraturik. Zehazki, arautegi, prozedura eta erabaki hauek arautzen zuten gai hau: "Gipuzkoako Ibaetako Campusean kanpoko guneak erabiltzeko arautegia", 2006ko otsailaren 24ko eta uztailaren 13ko Campuseko Batzarrak onartua; "UPV/EHUko lokalen eta instalazioen ezohiko erabilera baimentzeko prozedura", 2005eko otsailaren 9ko Campuseko Batzarrak onartua; eta "2012ko martxoaren 7ko erabakia, UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko errektoreordearena, unibertsitateko kideei eta kanpoko eragileei Carlos Santamaria Zentroko guneak erabiltzeko unean uneko baimena emateko prozedura ezartzen duena".

Horregatik guztiagatik, egokia iruditu zaigu dokumentu bakarrean jasotzea Gipuzkoako Campuseko barneko eta kanpoko guneen erabilera irizpideak, baimen prozedurak eta kudeaketa baldintzak, unibertsitatearen ohiko jarduerekin lotura zuzenik ez duten ekitaldi eta ekimenetarako.

Unibertsitate campusen arduetako bat da beren eremuan dauden erabilera partekatuko eta irakaskuntza nahiz ikerketa garapenerako baliabideak eta azpiegiturak kudeatzea. Gainera, Campuseko Errektoreordetzaren zeregina da UPV/EHUren ondarea osatzen duten ondasun higigarriak eta higiezinak, campuseko unibertsitate jarduera antolatu eta garatzeko erabiltzen direnak, babestu eta egoera onean mantentzea, kontuan izanik beti ikastegiaren organo zuzendarien eskumenak.

Hori horrela, Gipuzkoako Campuseko Batzarrak, Gipuzkoako Campuseko errektoreordeak proposatuta, 2014ko abenduaren 19ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, aintzat harturik otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren 194.2.h) artikulua (UPV/EHUren Estatutuak onartzen dituen dekretua) eta UPV/EHUko Idazkaritza Nagusiaren 2012ko azaroaren 19ko Erabakiaren 9.1.h) artikulua (Gipuzkoako Campuseko Batzarraren Arautegia onartzen duen erabakia) ematen dioten eskumena,



ERABAKI DU:

Lehenengo artikulua – UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko barneko eta kanpoko guneen unean uneko erabilerarako Arautegia onartzea.

Bigarren artikulua – Erabaki hau argitaratzea, Gipuzkoako Campusak Ignacio M^a Barriola Zentroan duen iragarki oholean eta campusaren web orrialdean.

Donostia, 2014ko abenduaren 19an

Gipuzkoako Campuseko errektoreordea
Ana Arrieta Ayestaran

Campuseko idazkaria
Itziar Zubia Olaskoaga

GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BARNEKO ETA KANPOKO GUNEEN UNEAN UNEKO ERABILERRAKO ARAUTEGIA

LEHENENGO TITULUA XEDEA ETA IRIZPIDE OROKORRAK

1. artikulua - Arautegi honen helburuak dira:

1. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU, aurrerantzean) Gipuzkoako Campuseko barneko eta kanpoko guneen unean uneko erabilerarako irizpideak finkatzea; hots, campuseko irakaskuntza jarduerarekin eta jarduera akademikoarekin lotura zuzenik ez duten ekintzak eta ekimenak egiteko eskatzen diren guneen erabilera arautzea.

2. Erabilera eta aprobetxamendu hauek zehazteko oinarriak eta prozedura definitzea (irudiak hartzea edo grabatzea xede duten erabilerak barne).

2. artikulua - Arautegi honen arabera erabil daitezkeen guneak, aretoak, lokalak... eranskinean zerrendatuta daude.

3. artikulua - Gipuzkoako Campuseko unibertsitate eremuan egingo diren jarduerak honako hauek errespetatu behar dituzte:

1. UPV/EHUren izaera eta helburuak (Estatutuetan jasota daude).

2. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak aldarrikatzen dituen balioak.

3. Ingurumen arloko balioak.

4. UPV/EHUK aldarrikatzen dituen aniztasun, elkartasun, berdintasun eta tolerantzia balioak.

5. Antolatu nahi den bilera, ekitaldi, ikuskizun edo ospakizun motari dagokion legedia.

4. artikulua - Baimena ematen duen organoak ahal berezia eta balioeste askatasuna ditu,



arautegi honen xedapenen eta honako irizpide hauen arabera:

- a) Era guztietako ekitaldiak egin ahal izango dira, unibertsitateari lotutakoak nahiz beste era batekoak.
- b) Lehenetasuna izango dute unibertsitate jarduerak eta kultura eta zientzia unibertsalaren ezagutzen hedapenak.
- c) Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren mende dagoen eraikin batean kokatuta dauden erakundeek lehenetasuna izango dute eraikin horretako gune komunen erabileran, eta beharrezkoak izango dira beti eskaera idatzia eta eraikin horretako administrazioaz arduratzen den organoaren baimena.
- d) Oro har, unibertsitateko kideek beren ikastegiari atxikita dauden lokalak eta aretoak erabiliko dituzte beren jardueretarako, eta soilik ikastegiak jarduerarako lokal egokirik ez duenean edo lokal erabilgarririk ez dagoenean eskatu ahal izango diote Campuseko Errektoreordetzari beste lokal batzuk erabili ahal izatea.
- e) Ezin izango da egin arautegi honen 3. artikuluan jasotako printzipioekin bat ez datorren jarduerarik, edo campusaren irakaskuntza jardueraren edo jarduera akademikoaren garapen eta funtzionamendu normala era nabarmenean urratzen duen jarduerarik, kontuan izanik beti irakaskuntza jarduera eta jarduera akademikoa unibertsitatearen funtsezko egitekoa dela, eta, hortaz, errespetatu egin behar dela zorrotasun ahalik eta handienaz.

5. artikulua - Jarduera bat egin ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira nahitaez:

1. Arautegi honek lokala erabiltzeko ezartzen duen baimena eskuratzea.
2. Arautegi hau eta jarduera edo ekitaldia egiteko ezarriko den beste edozein alderdi betetzeko erantzukizuna bere gain hartuko duen pertsona edo pertsonak izendatzea (identifikatuak eta legitimatuak).
3. Jarduerak eraginik ez izatea leku horretan egiten den irakaskuntza edo ikerketa jardueran. Gainera, ez die eragozpenik sortuko ere, arrazoizko muga batzuen barnean, inguruko eraikinetan (unibertsitatekoak edo ez) dauden pertsonen.
4. Jarduera edo ekitaldira joango den pertsona kopurua bat etortzea lokalaren edukierarekin.
5. Garaiz eta modu egokian aurreikustea jarduerarako behar diren materialen biltegitratzea eta energia elektrikoaren konexioa, unibertsitate zerbitzu eskumendunek agindu moduan.
6. Jarduera edo ekitaldi motaren arabera, erabiliko den eremuaren eta inguruko lekuen garbitasuna bermatzea, unibertsitatearen garbiketa zerbitzua gorabehera.

6. artikulua - UPV/EHUK amaitutzat eman ahal izango du noiznahi jarduera, ekitaldia edo ikuskizuna, eskaeran adierazi den moduan egiten ez bada, baimentzeko ezarri diren baldintzak betetzen ez badira edo edozein gorabehera eragiten badu ordena publikoan.

7. artikulua - Baimendutako ekitaldia edo jarduera amaitzean, lokala edo aretoa hasieran zegoen



moduan uzteaz arduratuko da baimena eskatu duen pertsona, eta garbiketa eta azpiegiturak erretiratzeko lanei ekingo die berehala. Arautegi honetan gai honetan jasota dagoen betebeharren bat betetzen ez bada, UPV/EHUK hartuko ditu bere gain lan hauek, eta ezarritako fidantza erabiliko du horretarako, indarrean dagoen kudeaketa ekonomikoko arautegiak ezarritakoaren arabera.

BIGARREN TITULUA **ESKARIA EGITEKO PROZEDURA**

8. artikulua - Jarduera edo ekitaldia egiteko, Campuseko Errektoreordetzaren baimena eskuratu beharko da, eta arautegi honetan ezarritakoa hartuko da kontuan. Campuseko Errektoreordetzak uko egin ahal izango dio eskaera bat aztertzeari, baldin ez bazaio garaiz iritsi (bost egun lehenago gutxienez ekitaldiaren aurretik).

9. artikulua - 1. Jarduera bat antolatu nahi duten unibertsitateko kideek ez dute inolako kontraprestazio ekonomikorik eman beharko lokala erabiltzeagatik, baldin jarduerak lotura badu beren kudeaketa karguarekin, irakats betebeharrarekin, lan eginkizunarekin edo beren izaerarekin, eta haiekin erlazionatutako unibertsitate jardueren barnean egiten bada. Unibertsitateko kideak hartuko dira UPV/EHUKo irakasleak eta ikertzaileak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, ikasleak edo talde horiei lotutako edozein motatako pertsona juridikoak.

2. Aurreko paragrafoak ezarritakoaren arabera jardungo ez duten unibertsitateko kideek eta unibertsitatearekin loturarik ez duten pertsonen diru kopuru bat ordaindu beharko dute, unibertsitate agintari eskumendunek ezarri duten tarifaren arabera.

10. artikulua - Aire zabaleko eremuak, lokalak, bilera gelak, ekitaldi aretoak... erreserbatzeko eskaera idatziz egingo da, horretarako sortutako inprimakia edo baliabide telematikoak erabilia. Honako hauek adieraziko dira:

1. Ekitaldia edo jarduera antolatu nahi duten pertsonen identifikazioa. Informazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Eskatzailea merkataritza sozietate bat denean, sozietatea eratzeko eskrituraren eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren kopia; elkarte edo fundazio bat denean, Estatutuen eta elkarte edo fundazioen erregistroko inskripzioaren kopia. Gainera, eskaera aurkezten duen pertsonaren ordezkariaren ahalordearen eta nortasun agiriaren kopia ere aurkeztu beharko dira.
- b) Antolatzaileak pertsona fisikoak direnean, jardueraren edo ekitaldiaren erantzukizuna bere gain hartuko duten pertsonen nortasun agiriaren kopia. Eskatzaileak unibertsitateko kideak direnean, nortasun agiriaren zenbakiak adieraztearekin nahikoa izango da baina ikasleak, irakasleak edo administrazio eta zerbitzuetako langileak diren adieraziko da, eta haien ikastegia, saila, institutua, katedra edo lanpostua.

2. Arautegi hau eta baimenak ezarriko dituen baldintzak zorrotz betetzeko erantzukizuna bere gain hartuko duen pertsonaren (edo pertsonen) identifikazioa.

3. Jarduera egingo den leku zehatza (ikasgela, ekitaldi aretoa, gela...), data edo erabilera epea, eta jarduera edo ekitaldia hasteko eta amaitzeko proposatzen diren orduak. Aire zabalean eginiko jardueren kasuan, hurbilen zer eraikin eta ikastegi dauden adieraziko da, eraginik izan ote



daitekeen ikusteko.

4. Jarduera egiteko arrazoi nagusia, eta programa.

5. Aurrekontua eta, hala dagokionean, zertarako erabiliko den lortutako dirua.

6. Jarduerarako instalazioak: argia, soinua, jan-edatekoak banatzeko puntuak, etab. Instalazio elektrikoren bat egin nahi denean, edo karpak, aldarmioak edo antzeko elementuak jarri nahi direnean, dagokion informazio teknikoa aurkeztuko da eskaerarekin batera, eta muntaketa eta desmuntaketa lanak segurtasun eta prebentzio arauen arabera egingo direla ziurtatu beharko da, unibertsitate organo eskumendunek emandako aginduen arabera.

7. Ordena eta segurtasuna bermatzeko hartuko diren neurriak, produktuak biltegitratzeko modua, zerbitzu higienikoen erabilera eta jarduera amaitu ondorengo garbiketa, jarduera edo ekitaldi motak hala eskatzen duenean.

8. Ordena sistema osagarria, kontuan izanik jardueraren ezaugarriak eta aurrez kontsulta eginik, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak hala ezartzen duenean. Beraz:

- a) Sistema honek UPV/EHUko segurtasun zerbitzuaren errefortzu modura jardungo du, zerbitzu horrek emandako aginduetara.
- b) Antolatzaileek ordainduko dute.
- c) Campuseko Errektoreordetzak ezarritako kide kopurua izango du.
- d) Beharrezkoa bada, beste segurtasun eta higiene neurri batzuk ere hartuko dira.

9. Honako hauetarako konpromiso formala:

- a) Jarduera normaltasun osoz egitea.
- b) Jardueran erabiliko den lekua hasieran zegoen moduan uztea, arrazoizko irizpide batzuen barnean, 24 orduko epean gehien jota, ezohiko arrazoiek epe laburrago bat eskatzen dutenean izan ezik.
- c) Jarduerak edo ekitaldiak eragin ditzakeen edozein motatako kalte-galeren gaineko erantzukizuna espresuki hartzea; bereziki, pertsonei edo gauzei eragindako kalteengatiko erantzukizun zibila.
- d) UPV/EHUren irudi korporatibo/instituzionala zuzen erabiliko dela bermatzea.
- e) Hala dagokionean, bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskara eta gaztelania).
- f) Arautegi honen edukia betetzea, eta neurriak hartzea hirugarrenek eduki hori ez betetzea saihesteko.
- g) Eraikuntza Kode Teknikoaren (314/2006 ED) arautegian eta aplikatu beharreko gainerako araudietan ezarrita dauden okupazio dentsitate balioak betetzea, beharrezko neurriak hartuta parte-hartzaileen edo ikus/entzuleen kopuru eta kalitatearen kontrola bermatzeko, horien portaera egokia ziurtatzeko (aretoaren barnean eta aretotik kanpo),



eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna kalte lezaketen arriskuen prebentziorako.

- h) Eraikinaren larrialdi planaren berri izatea eta plan hori betetzea; ebakuazio irteerak eta elkargunea non dauden jakitea; eta larrialdi arduradunak izendatzea, kopuru nahikoaz, jardueran bildutako pertsonen ebakuazioa bermatzeko.

11. artikulua.- Jardueraren ezaugarrien arabera, honako hau eska dakioke antolatzaileari:

1. Gizarte erantzukizuneko aseguru bat sinatzea unibertsitatearen alde, unibertsitateko agintzaritza eskudunak ezarritako zenbatekoan, unibertsitateko eta kanpoko instalazioetan izandako kalteak eta gastuak estaltzeko, bai eta, hala behar izanez gero, jarduera horren ondorioz unibertsitateak hirugarren pertsonetikiko izan ditzakeen erantzukizunei aurre egiteko ere.

2. Fidantza bat jartzea, unibertsitateak horretarako adierazitako kontuan. Zenbatekoa kostu osoaren % 25 izango da, BEZik gabe.

12. artikulua.- Antolatzaileari eska dakizkiokeen dokumentuak eta datuak aurkeztu ondoren eta, eskatzeari egoki iritziz gero, Campuseko Zerbitzu Teknikoek eta Gerenteordetzak jarduerari buruz igorritako txostenak ikusita, Campuseko errektoreordeak horri buruzko erabakia eta jakinarazpena emango ditu, 15 laneguneko epean, gehienez ere. Erabakia idatziz jakinaraziko zaie eskatzaileei, eta, isiltasunaren ondorio gisa, baimena ukatu dela ulertuko da.

Eskatzaileari informazio osagarria edo argibideak eskatzen bazaizkio eta pertsona horrek bost egun naturaleko epean erantzuten ez badu, eskatzaileak eskaerari uko egin diola uler daiteke.

13. artikulua.- 1. Gunea edo lokala une jakin batean erabiltzeko baimenaren jakinarazpena jasotakoan, fidantza jartzeko arduraren pertsonak dagokion kopurua sartu beharko du, horretarako berariaz adierazitako UPV/EHUren kontuan. Fidantza sartzen ez den bitartean, eskatutako gunea edo lokalaren erreserba ez da behin betikoa izango.

2. Era berean, eskatzaileak, alde aurretik, baimenean bertan ezarriko zaizkion baldintzak bete beharko ditu.

3. Baldintza horiek betetzea ezinbestekoa eta nahitaezkoa izango da, gunea okupatzeko eta eskatutako ekimena edo jarduera egiteko.

14. artikulua.- Jarduerarako baimena eskuratzeak ez du antolatzailea salbuetsiko dagozkion udal baimenak, hala behar badira, eskuratzetik, horiek ere lortu behar baitira baimena behin betikoa izan dadin.

15. artikulua.- Eskatzaileak, edozer dela eta, erreserbatutako gunea, lokala, aretoa edo dena delakoa erabiltzeko asmorik ez badu, idatziz jakinaraziko dio baimena eman duen organoari, honek beste eskaera batzuei erantzuteko aukera izan dezan. Horrelakorik jakinarazten bada jarduera egin baino bost egun lehenago edo epe laburrago batean, gerta daiteke jarritako fidantza ez itzultzea.

16. artikulua.- 1. Jarduera egin ondoren, eskatzaileak gunea erabiltzeari dagokion tarifaren zenbatekoa ordaindu beharko du, unibertsitate organo eskudunak adierazitako epean eta UPV/EHUren kontuan.

2. Fidantza kontzeptupean emandako kopurua eskatzaileari itzuliko zaio, indarrean dagoen



UPV/EHUren kudeaketa ekonomikorako arautegiak ezarritakoaren arabera.

HIRUGARREN TITULUA BAIMENDUTAKO JARDUERAK

17. artikulua.- Arautegi honen esparruan, eranskinean aipatutako gunee eta lokaletan ekitaldi, ikuskizun edo jarduera kulturalak, artistikoak, kirolekoak, sindikalak, erlijiosoak, ongintzazkoak edo komertzialak egin ahal izango dira; baldin eta, arautegi honetan aipatutako baldintzak eta eskakizunak betetzen badira.

18. artikulua.- Baimena jaso behar duen ekitaldia aurreko artikuluan adierazitako kategoria batean baino gehiagotan sar badaiteke, baimena emateko eskumena duen UPV/EHUren organoak zehaztuko du kategoria, eta, edonola ere, gunea okupatzeko baimena ematen den erabakian bertan adierazi beharko da.

LEHENENGO KAPITULUA KULTURA, ARTE, ZIENTZIA ETA KIROL JARDUERAK

19. artikulua.- Kapitulu honetan edozein motatako ekimenak sartuko dira –hala nola hitzaldiak, biltzarrak, erakusketak, ikuskizunak, erakustaldiak, eta abar–, baldin eta kultura, arte, zientzia edo kirol izaera badute, bigarren maila batean bestelako motibazioak izateko aukera eragotzi gabe.

20. artikulua.- 1. Horrelako jarduerari dagokienez, UPV/EHUK, ekitaldiaren egoera berezia edo eskatu duen organoaren berezitasunak kontuan hartuta, antolatzailea salbuetsi dezake jarduera egiteko gunea edo higiezina okupatzeari dagokion tarifa osoa edo horren zati bat ordaintzetik, salbuespen gisa eta baimentzeko erabakian behar bezala justifikatuta. Okupazio tasa ordaintzeko salbuespen horrek ez du esan nahi antolatzaileak dagokion fidantza jartzeko salbuetsita dagoenik; haatik, fidantza jarri beharko du, edonola ere.

2. Antolatzailea tarifa ordaintzetik salbuetsita geratzen bada, ekitaldiari buruzko publizitatean, horrelakorik eginez gero, UPV/EHU agertuko da, laguntzaile edo babesle gisa, onartutako nortasun korporatiboari buruzko arautegiak ezarritakoaren arabera.

3. Aurreko atalean aipatutako salbuespena ez da onartuko, inola ere, antolatzaileak ekitaldi edo jardueraren bidez irabazi ekonomikorik lortu nahi badu.

21. artikulua.- Kirol jarduerak, lehentasunez eta ahal den neurrian, UPV/EHUren Gipuzkoako Campuseko errektoreordetzak berariaz kudeatzen dituen instalazioetan egingo dira.

22. artikulua.- Gipuzkoako Campusaren kanpoko guneeetan ikuskizunak, erakustaldiak, kirol lehiak edo bestelako ekimenak egitean, ikastegietako irakaskuntza eta ikerkuntza jardueren funtzionamendu egokia ez eragozteko beharrezkoa den isiltasuna errespetatuko da; hartara, soinua anplifikatzeko tresnak erabiltzea ezinbestekoa izanez gero, ekitaldiak ez dira 19:00ak baino lehen hasiko, eta, beranduenez, 22:00etan amaituko dira. Ezohiko arrazoiak direla-eta, irizpide hauetakoren bat aldatu nahi izanez gero, Campuseko errektoreordeak berariazko baimena eman beharko du.

2. Edariak eta janariak saldu ahal izango dira, soil-soilik eskatzaileak eskatzen badu eta Campuseko errektoreordeak horretarako baimena ematen badu. Baimena soilik emango da,



antolatzaileak eskuratutako diru sarrerak unibertsitate xedeetarako erabili behar direnean.

23. artikulua.- 1. Horrelako ekitaldiak egiten direnean, sustatzaileak ekitaldia egingo den gunera sartzeko sarrera bat kobratzea baimendu daiteke.

2. Sustatzailea unibertsitateko kidea izanez gero, jardueraren bidez eskuratutako irabazi ekonomikoa soil-soilik erabiliko da izaera bereko xedeetarako.

BIGARREN KAPITULUA **JARDUERA POLITIKOAK, SINDIKALAK ETA ERLIJIOSOAK**

24. artikulua.- Ekitaldi politiko, sindikal eta erlijiosotzat hartuko dira proiektu eta ideologia politikoak, sindikalak edo erlijiosoak aurkezteko, sustatzeko eta hedatzeko xedea duten jarduerak eta ekimenak; kongresuak eta ospakizun erlijiosoak barne.

25. artikulua.- Ekitaldi horietarako publizitatean ez da, inola ere, UPV/EHUri buruzko erreferentziarik agertuko, ekitaldia egiteko lekuaren aipamenean izan ezik.

26. artikulua.- Horrelako jarduera eta ekitaldi politikoak, sindikalak eta erlijiosoak UPV/EHUren barruko lokaletan bakarrik egingo dira, eta ezingo dira egin Campusaren kanpoko gunetan.

HIRUGARREN KAPITULUA **ONGINTZAZKO ETA ELKARTASUN JARDUERAK**

27. artikulua.- Ongintzazko eta elkartasun jardueratzat hartuko dira gaur egungo ekologia, ingurumen eta gizarte disfunczioez herritarrek kontzientziatzeko xedea duten ekitaldi guztiak, baita arazo horiek arintzeko diru funtsak edo ondasun materialak biltzeko xedea dutenak ere.

28. artikulua.- Horrelako jardueretan produktuak saldu, eta dirua nahiz edozein mailatako ondasun higikorak bildu daitezke; baldin eta, eskuratutako irabaziak jardueraren bidez salatutako arazoa edo egoera arintzeko erabiltzen badira; halaber, UPV/EHUK, modu berezian, antolatzailea jarduera egingo den gunea okupatzeko edo erabiltzeko tarifa ordaintzetik salbuetsi dezake. Dena den, okupatzeko tarifa ordaintzeko salbuetsita egon arren, antolatzaileak dagokion fidantza jarri beharko du, ez baita betebeharrak horretatik salbuetsita egongo.

29. artikulua.- Ekitaldi horietako sustatzailea ezin da izan, inola ere, alderdi politiko bat.

LAUGARREN KAPITULUA **JARDUERA KOMERTZIALAK**

30. artikulua.- Jarduera komertzialtzat hartuko dira, arautegi honen ondorioetarako, kontsumo orokorreko edo unibertsitateko talde jakin eta zehatz baten kontsumo espezifikorako produktuak sustatzeko xedea duten jarduerak.

31. artikulua.- Produktuen sustapenaren testuinguruan, ezin izango dira horiek saldu, non eta horretarako baimenik eman ez duten. Horretarako baimena salbuespenezkoa eta arrazoitua izango da, beti.



32. artikulua.- 1. Horrelako ekitaldiak edo jarduerak UPV/EHUren jabetzako aire zabaleko guneetan egiten direnean, ezin izango dira erabili hotsa edo soinua amplifikatzeko tresnak, baldin eta Gipuzkoako Campusa osatzen duten eskola eta fakultateetako ikerketa eta irakaskuntza jarduera arrunta eragozten badute.

2. Jarduera komertzialaren barruan, laginak doan banatuz gero, enpresa baimenduak sustapenean banatutako ontziak jaso eta guztia garbitu beharko du, jardueraren bidez sortutako hondakinak barne.

3. Sustapena amaitzen denean, enpresa antolatzaileak azpiegitura desmuntatu beharko du, okupatutako gunean jarduerari lotutako ezer utzi gabe.

33. artikulua.- Jarduera komertziala soilik doaneko laginak banatzeko egiten bada, debekatuta dago enpresa sustatzailearen langileak campuseko eraikinetara sartzea.

BOSGARREN KAPITULUA

GUNEAK ERABILTZEA IRUDIAK HARTZEKO ETA GRABATZEKO

34. artikulua.- Gipuzkoako Campusaren barruko guneetan

35. artikulua.- Pertsona interesdunak irudiak hartu, eta erabili ahal izango ditu; baldin eta, datuen babeserako eskubideak, irudietan ager daitezkeen pertsonen ohore, irudi eta intimitate pertsonal nahiz familiakoaren eskubideak errespetatzen baditu, bai eta horren eraginpean egon daitezkeen egile eta ondasun eskubideak ere.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Eranskinean jasotako gune bat edo batzuk gerora ez erabiltzeko moduan geratuz gero, administrazioak bere kabuz jasoko du egoera hori Gipuzkoako Campuseko errektoreordearen erabakiaren bidez, aldeztatik Arautegi hau aldatzeko beharra izan gabe.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira xedapen hauek: "Gipuzkoako Ibaetako Campusaren kanpoko guneak erabiltzeko arautegia", Campuseko Batzarrak 2006ko otsailaren 24an eta uztailaren 13an onartutakoa; "UPV/EHUren instalazioen eta lokalen ezohiko erabilera baimentzeko prozedura", Campuseko Batzarrak 2005eko otsailaren 9an onartutakoa; eta, "UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko errektoreordearen 2012ko martxoaren 7ko erabakia", Carlos Santamaria Zentroaren guneak unibertsitateko kideei eta kanpoko eragileei unean-unean erabiltzen uzteko baimen prozedura ezartzen duena; eta, Arautegi honen aurreko xedapen guztiak, haien edukia arautegi honen aurkakoa izanez gero.

AZKEN XEDAPENA.

Arautegi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Campuseko Batzarrak onartu eta hurrengo egunean, eta jendaurrean jarriko da UPV/EHUko Gipuzkoako Campusaren webgunean.



ERANSKINA

1º. Kanpoko guneak:

- A) Oñati plaza.
- B) Miguel Unamuno parkea.
- C) Ignacio M^a Barriola Zentroaren etxabeak.
- D) Carlos Santamaria Zentroaren kanpoaldea.
- E) Ibaetako Campusaren kanpoko aparkalekuak.

2º. Barruko guneak eta lokalak:

- A) Ignacio M^a Barriola Zentroa.
 - a) Entzunaretoa (350 pertsonentzako lekua)
 - b) Ikasgelak
 - c) Atariak
- B) Carlos Santamaria Zentroa
 - a) "Antonio Beristain" entzunaretoa (202 pertsonentzako lekua)
 - b) "Andrestegui" aretoa
 - c) Ikasgelak
 - d) Gelak
 - e) Irakaskuntza tailerra
- C) Joxe Mari Korta Zentroa
 - a) Entzunaretoa (87 pertsonentzako lekua)
 - b) Bilera gelak
 - c) Multimedia aretoak

Hirigintza jarduera bat garatzearen ondorioz, erabiltzeko moduan gera daitekeen beste edozein.